

OLERTi

Iru illabeteroko Aldizkaria
(Suplemento poético de KARMEL)

ZUZENDARI: AITA ONAINDIA — LARREA (ZORNOTZA)
BAMATZAILLE: X. P. ALBIZU — BILBAO

I GO URTEA

1959

URRILLA-LOTAZILLA

Eder-gaiari ekiñik, idazkera aitatu gendun atzenengo sarrera-lantxoan, au da, idazteko era edo modua nundik datorren eta zelakoa izan bear dauan.

Euskerazko idaz-k-era oni estilo deritxoe erderaz, gerkerako stylos'tik artuta; eta antxiñakoak ol ezkoztuetan idazteko erabilli oien eztentxoa besterik ez dogu. Gaur era, gisa, bide, tankera ta abar adi-erazteko dabilgu.

Eta au be, idatzi-tankerari gagokiozalarik, modu bitara artu geinke. Lenen, itz-egin edo idazteko dogun era apartekoa azaltzeko; eta ez ditugu emen izkuntzak berak bere-bere dituan gaitasun iraunkorrik gogotan artzen,

*bai gauzak bai burutapenak iragarteko esan
di ta itz-jokuak eratu ta korapillatzen era
billi oi dogun azaletiko jantzia baiño. Biga
rren, zerbait idaztean, ots, olerki bat, era edo
modu berezia darabilgu; geure oldozkun eta
biotz-zauskadak iraultzean, kutsu ta zer ba
rrenkoia emon oi dautsagu idazlanari; eta
au, geure zerbait —arima zati bat— dagigu
zan lanetan mamintzea, geure nortasuna dir.
dir jartea, baiño ez da.*

Eder-eredua dagien irudi, esaera ta abar, geure buruz sortuak noski, eder-lanetan itsa. tsita lez izten ditugu: taiu onetan egiña tan. kera berarizkoa dala diñogu, orrelakoa e: ba'da, barriz, arek ez dabela olako berezita. sunik. Asmamena ta egipena bear dira, nai ta-ez, goitiko tankera ori jadesteko. Edozein liburu irakurri, idazkera apaiña, ariña, jorin, latza ta onakoak aurkitu oi doguz; ta diñogu: orren idaz-tankera (estiloa) argia, zea tza. arroa, txukuna edo samurra da, bakoi tzak zelan azaltzen dabezan bere buru-sor. pen eta gogaiak.

Geiago, idazkera ez dogu ikur eta antziru dietan bakarrik billatu bear; ba-dira beste zertzelada, xeetasun eta alderdirik asko be begiragarri ditugunak: idazlan batean dau kaguzan apaindura, edergarri, txukuntasun ta garaitikoak, zelai, zugatz, arkaitz, mendi, ur, otoi, txori-kanta; giza-irudimenak eio dauen guztia, neurtu ta aztatu dauen dana.

*Xeetasun guztiotan daukagu nimbait tan-
kera berezia dagian zer ori. Sandia edo urlia
nor dan olerki baten ezarri daunetik ater-
geinke. Liburu bat, edo olerki bat, pixkat iro-
kurriz gero, laster arin igarri geinke norena
dan, zeiñek egiña, noren antza ta marra da-
roan. Margo-lauki batek, zerbait ba'da, mor-
golariaren —ez zantzua soil-soilkī— zati bal-
dauko ta bertatik igarten dogu arena edo*

mena dant. Olerkietan, irakurri Lizardi, Ori-
et, Gaztelu, Bordari nai Jauregi'ren bat, eta
ingoan igarriko dozu norena dan : bakoi-
kerantsi hautso bere lanari olako zerbait,
nastu eziña. baurrezko yako

Odola giza-soiñari bear-bearrezko yako; bardin idazkera be literatur-lanetan. Gure porputzari odolak dakartso biziteko bear daun. indarra ta osasuna, berak janaritu ta azten dau. Odola guztiona da, baiña bakoitzak darabil berea: idazkera be bardintsu, danona izan arren, ba-dau bakoitzak berea, oso berazkoa, barren-izatetik datorkiona. Ta orrek egari daroatso idaz-lanari soiñā ta bizia.

ezori deroatso idazkera onela bereiztu
Ontara ezkeron, idazkera onela bereiztu
ginko: norbere barruan sorturiko buruta-
pen eta biotz-ikutuak ele-ederkiro adi-eraz-
uko tankera. Ele-ederkiro diñogunean, ba-
riz, au da aditzen emon nai doguna: eratsu,
ia neurri, bizi tu eder azaldu bear doguzala
bururakizun eta biozkadak.

Oar dogunez, idazkera asko dazauguz, idaz-
la eta idazlan aiña edo geiago nimbait. Baiña
elozain idazkeratan, naiz jagia naiz laua
cum, idazlearen aiurri, izakera ta nortasunez
gintzatutako ertz-mugak, insgurumariak eta
gaitasunak dakusguz; ots, idazlearen aburu,
ertri, asmo ta gogo biztugarriz apaindu ta
ederlikurtez bete-beterik daukaguzan atal-
ak. Bai ta aurkitzen doguz beste margo, lits
eta gaitasun batzuk be, idaz-lanaren gun, arlo
ta eder-muetari dagokiozanak noski.

Beraz, muiño ontati begira ezkero be, bitarikoa dogu idazkera: 1) Ertilaria bere se-
la, izakera ta barne-giroari dagokionez, idaz-
lanetan maminduta lez izten dauan era beiñe-
ra, berezitasun bere-berea —ortik sarri en-
tun oi dogun gizona bera dala idazkera—;
2) idazleak bere lanetarako aukeratu ditun
muik edo eder-muetak eskatzen dabezan zer

apartekoak. Esaterako, bardin ez doguz idazten maite-eskutitz bat eta ziri-olerki bat; nai ta idazle berberak egiñak izan, gai bi oneik —ots, amari buruzko olerki baten— olerkari berean taiutu ta adierazten amari dagokio. zan gauza ta xeetasun guztiak.

Azkenik, zer dogu, ba, idazkera? Izatezko setak osotuta, esan edo idazteko era berezia, bai noberaren asmamen joritik bai aukeratu dan idazgaitik edo arlotik sortua.

Urrengo banakoan azalduko dogu elerti. zaleak naitaezko dauen idazkera berezi zu zelan azi, geitu ta osotu bear dan.

0.